

PEDRO H. SARRIONANDIA
GARAITIK MAROKORA ETA ITZULERA

DURANGO PUDO SER DETROIT

ZORNOTZAKO BATAILA

LA EDAD DE ORO DEL CASERIO VASCO

astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA

6.zk 2012 5€





Garaitik Marokora eta itzulera

Pedro H. Sarrionandia (1865-1913)



TESTUA: MOHAMED TAH-TAH

Istripu tonto bat izango zen akaso. Fraidea, Durangotik Zornotzarako tranbiako bagoitik jausi eta, larri zauritua, laster hil zen Larreako komentuan 1913ko abuztuaren 5ean. Istripuaren inguruko berririk ez zen prentsan agertu egun haietan eta, harrezkeroko ia mende betean ere, ez da publikatu izan fraide haren heriotzaren edo bizitzaren aipamenik.

Historia zabortegi bat dela esaten zuen Walter Benjaminek, zaborra bezala enterratzen dela jendea, galtzen direla objektuak eta ahazten direla gertaerak. Eta hala, zarama eta hondakinen artean arakatzeko duenak, gero, harribitxi bat topatzen duela lantzean behin. Harribitxia, edo bitxitzat har dezakeen zerbait. Eta halakotzat har daiteke Pedro H. Sarrionandiaren *Gramatica de la lengua ri-feña* liburua, 1905 urtean argitaratu zena lehenengoz Tangerren.

Historia apur bat egiten ahaleginduko gara orduan, (historia den) zabortegitik objektua atera eta ahalik eta txukunen erakustea bada historia egitea.

GARAITIK TETUANERA

Pedro Hilarion Sarrionandia 1865eko urriaren 22an jaio zen Barrenkuatze baserrian, Garaiko Barrenku auzoan, Oizeko mendi barrenean. Azken karlistada deitzen dena (azkenaurrekoa, 1936koa kontatzen bada) ezagutzea suertatu zitzaion zazpi urtetatik hamar urtetara. Imajina daiteke ume baserriarren bizimodua egingo zuela, etxeko beharrak. Garaiko eskolara ere joango zen eta dotrinara. Hamabost urte bete arte, euskaraz besterik ez zuela egin idatziko zuen gero Pedro Hilarionek esko-

ketak bete, abadetu eta Marokoko misioetara bidali zuten. Hala ailegatu zen, 1892ko ekainean, uda bete-betean, Tangerrera eta Tetuanera, Bibliako ilustrazioen antzeko paisaietara, lur eremu eta palmondoen artera: medina fortifikatua, kale meheak, merkatuak, taberna arraroak, suge xarmatzaileak, juduen aljama, almueda-noaren deiadarrak...

Fraide frantziskanoek tradizio luzea zuten Afrika iparraldean. Frantzisko Asiskoak (Umbriakoak) ordena fundatu eta laster izan zituzten martiriak Marrakexen, 1221ean.



Barrenku Auzoa. Ezkerretik bigarrena, Pedro Hilarionaren "Barrenkuatze" baserria.

latik kanpo. Harik eta errekrutadorea agertu zen arte, (lurraren koloreko) tunika kapusaidun fraide frantziskanoa, umeak komentura eramateko misioarekin.

Ume baserriarrek ez zuten irtenbide asko sasoi hartan. Etxean geratzeko jabegai bakarra nahikoa izanda, besteak joangai ziren, kalera edo Ameriketara. Fraide sartzea ere lekutara alde egiteko beste modu bat zen, emigrazio forma bat zen teknikoki. Pedro Hilarion, hamabost urterekin, Santiago de Compostelako kolegio frantziskanora eta, handik hara, Chipionako Nuestra Señora de Regla misionisten ikastetxe berrira. Ikas-

Kristau komunitate txikiak bisitatzen ibiltzen ziren, europar merkatariekin harremanetan eta batez ere pirata berberiskoen gatibu kristauei espiritualki eta materialki laguntzen, Marokoko sultanak lurralde haietan alde batetik bestera ibiltzeko dahir edo 'baimena' ematen baitziren. 1630 urteaz geroztik misio-etxe frantziskano finko bat zegoen Marokon eta, José Lerchundi 1862 urtean hara heldu zenetik, asko zabaldu zen misio hori.

Halako lorpen historikoak botere-jardunak izaten dira eta, Marokoko frantziskano espainolen presentzia ere, gudaldiaren ondorioa izan zen. 1859-1860ko kanpai-

nan, Leopoldo O'Donnelen espedizio militarra garaile sartu zen Tetuanera, hango hainbat etxe bota (bertakoen gogoa oinperatzeko) eta meskitak munizioa eta zaldiak gordetzeko erabili zituzten. Tetuango meskita nagusia katedral bihurtu zuten, Nuestra Señora de las Victorias izenarekin.

Moroen galera eta kristauen irabazia. Durangaldean ere ospatu zen Uad-Ras ordokiko bataila, eta Sultana-
rekiko hitzarmena. Bere buruari Pantxillon deitzen zion batek, behintzat, hamahiru bertso inprimarazi zituen

 Melilla 1893 urtean.




bela (baina tolestuak) eta arraun ontzi grabatuaren azpian: Moruen convenioco verso berriac Gualdraseco batallari Panchillonec atariac. 1860 urtea zen:

***“Aterazera noa
cantabat berria
nola acabatudan
moruen guerra
Odonell, jaunarequin
euren erreguia
laureun milloegaitic
compondu ei dia.”***

Moroekiko hitzarmenarekin ados eta pozik zegoen Pantxillon bertsoegilea, paperean bere izena aipatzen duela (beste bertso batzuetan ere bere izena aipatzen zuelako dakigu ahorik aho egunok arte kantatu diren beste bertso batzuen autorearen ere bera dela: “Bizkaiko bazter baten, Anboto partian...”) bakarrik atera ahal dena historiaren zabortegitik. Laurehun miloi diru orduan. Eta kolegioak gainera misionistentzat.

Baina frantziskanoak ez ziren Marokora kolonizazioaren ondorioz heldu. Alderantziz, kolonizazio ejertzito

espainolaren aitzindari gisa (eta halaxe gertatzen zela beti idatzi zuen Francesc Pi i Margallek, misionistak izaten zirela kolonizazioen aitzindariak). Artean, Europako estatuak munduaren punta batetik bestera bakoitzak zein zati harrapatu ari ziren, batez ere Afrikan, europar nazioen handitasuna konkistatzen eta menderatzen (‘babesten’ hitza erabiltzen zen, eufemismoa) zituzten herrien neurrikoa baitzen. XIX. mendearen azken hamarkadako Marroko ez zen benetako estatua, Mendebaldeko boterearen eskuetan geroago eta lotuago zegoen txotxongilo bat baizik.



JOSE LERCHUNDI

Jose Lerchundi zen oraindik Marokoko Misioetako Prefektu Apostolikoa Pedro Hilarion Sarrionandia heldu zenean. 1836an sortua Orion, José Lerchundik hogeita hamar urte zeramatzan Marokon eta itzelezko eragina zuen. Frantziskotarrek benefizentziazko lanak ugari egiten zituzten: etxe merkez osatutako auzoak eraiki, osasunaren aldeko ekimenak, ikastetxeak, pobreentzako sukalde bat ('Pobreen Aita' deitzen zioten Jose Lertxundiri). Harreman onak zituen, gainera, Mulei Hassan I sultanarekin, hau Marokoko errege izendatu zutenetik 1873 urtean eta, batez ere, sultanak Jose Lerchundi espainiar enbaxadorearen itzultzaile gisa ezagutu zuenetik 1882an. Harrigarria egin zitzaion sultanari Jose Lerchundik arabiera hain ondo berba egitea.

José Lerchundi, beste ofizio edo zeregin askoren artean, arabista zen. Arabiera ez da hizkuntza bakar bat: bada-gog arabiera klasiko sakratu bat, Koranekoa, eta badaude lekuan lekuko hizkuntzak edo berbaera idatzi-gabeak. Maroko arabiera arrunta, esate baterako, arabiera literarioarekiko oso desberdina da, baina ez da idazten

eta herri xehearen hizkera normala da. Jose Lertxundi, Maroko aldean mintzatzen zen arabiera ikasi eta erakusten ahalegindu zen. Hainbat liburu idatzi zituen, eta lehenengoa hau izan zen: Rudimentos de árabe vulgar que se habla en el imperio de Marruecos. Ollendorff metodoaren kriterioekin prestatua, Marokoko arabiera arrunta ikasteko oinarrizko eskuliburua bilakatu da harrezkero. Beste liburu osagarri bat ere argitaratu zuen Jose Lerchundik: Vocabulario español-arábigo del dialecto de Marruecos.

Pedro H. Sarrionandia Marrokora heldu zenean, bada, Jose Lertxundik hizkuntza bereberek ikasteko eginbidea proposatu omen zion. Marokon gutxiengo batek baka-rik ezagutzen zuen arabiera klasikoa, arabiera arrunta hitz egiten zen herrialde batzuetan eta hiri gehienetan, baina beste herrialde batzuetan, mendi aldean batez ere, berbere edo tamazight hitz egiten zen, bertakoek tarifit edo xelha ere deitzen zuten hizkuntza. Alfabetorik, hizte-girik, gramatikorik gabeko hizkuntza zen, antzinatik mintzatu dena Afrika iparralde osoan, Abisinia eta Nubiatic mendebaldeko itsasertzeraino, gune sakabanatutan eta mintzamolde desberdinetan.

Ez zegoen amazigeraz ia ezer idatzirik, eta amazigerari buruz beste hizkuntzatan ere oso gutxi. Frantsesa eta arabiera errepasatu behar izan zituen Pedro H. Sarrionandiak, frantsesa hizkera berberei buruz Aljerian argitaraturiko ikerketa apurrak irakurtzeko eta arabiera bertakoekin harremanak izan ahal izateko. Ez zen erraza izango, zerotik hasi eta, beste hizkuntza haren nondik norakoak harrapatzea:

“Zelan esaten da ‘ni’ erriferaz?” –kontatzen zuen gero fraidekide batek galdetu zuela behin hasiera haietan.

“Chee” erantzun zion bertako batek.

“Eta zelan esaten da ‘zu’?”

“Nech” erantzun zion.


‘Ni’ = chee, ‘zu’ = nech apuntatu omen zuen Pedro H. Sarrionandiak. Baina, chee = ‘zu’ zen nech = ‘ni’, izan

(ikuspegiaren araberakoak izaten baitira gauzak). Eta izenorde pertsonalak hala zailtzen bazitzaizkion, zelan antzeman eta antolatu, bestelako erreferentziarik gabe, esate baterako, aditzaren denborak...

BERBERE EDO AMAZIGERA

Berbere hitza ez da berberea. Berbere, barbaro hitzaren aldaera da, barbarotzat hartzen zutelako grekoek, latinoek, arabiarrek eta europar modernoek Afrika ipar-sortaldean bizi zen jende hori. Hau da, konkistatzaile eta kolonizatzaileek ezarritako izena zen berbere. Gaur egun, berbereek beste izen bat ere erabiltzen dute: amazigh (plurala, imazighen). Berbere izena onomatopieiatik bazetorren, barbaro ulergaitzaren soinutik, amazigh hitzak ‘jende librea’ edo ‘jende noblea’ esan



 Barrenkuatze baserria. Txelu Angoitia.




📷 Pedro Hilarion Sarrionandia, gaztea

nahi omen du. Hizkuntzaren izena, berriz, tamazight da, amazigh hitzaren femeninoa, arabieraz bezala amazigeraz hizkuntzak femeninotzat hartzen direlako, eta berba maskulinoa femenino bihurtzeko eskema hauxe da: t[...].t.

Ezagun da tamazight hori libieraren eta egiptera zahararren ahaide dela. Gero, immigrazioek mugatu eta erroiztu dituzte hizkuntza horren guneak: VII mende-

ko arabiar konkistatzaileek, XI mendeko beduinoek, XV mendean Andaluziatik itzulitako erre-fuxiatuek, eta azken mendeetako sultango eta inperialismoek. Gaur egun, Afrika iparraldeko espazio itzel horretan barreiatuak geografikoki (eta baztertuak sozialki), hogeiren bat dialekto hartzen dira haintzat. Zerrenda, sortaldetik mendebaldera, hau da: tasiwit hitz egiten da Siwako oasian, Egiptoko ipar-sartaldean; tawjilit egiten da Awjilako oasian, Libia sortaldean; tasoknit hitz egiten da Libian, Soknan; tanefusit egiten da Nefusan, Tripolitik hurbil; tajerbit da, Tunisian, Jerbako irlan; tamerzet egiten da Tunisia hegoaldean; taxawit edo xawi deitzen den dialektoa hitz egiten da Aures aldean, Tunisia sartaldean eta Aljeria sortaldean, hiru milioik hitz egingo dute taxawit gaur egun; takbailit edo 'kabiliera' hitz egiten da Kabilian, amazigeraren beste dialekto bat hitzundu ugari dituen; Tamzabit egiten da Saharako mortuko Mزاب aldean, Aljeria hegoaldean; teggargrent egiten da Uarglan, Aljerian; tazenatit Tuat aldean; tamahak edo tamaxek hitz egiten dute tuaregek (Kel Tamaxek deitzen diote euren buruari, hau da, 'amazigeradunak'), horiek ere milioi batzuk dira gaur egun Libia, Aljeria, Niger, Burkina Faso eta Maliko estatuei dagozkien espazio zabaletan; taznagt hitz egiten da Mederdra eta itsasoaren artean, Mauritanian, hiztun gutxiarekin; trarza, Mauritanian; taxelhit hitz egiten da Marokoko hego-sartaldean; tamazight, Maroko erdialdean, Atlas mendien inguruan; eta tarifit hitz egiten da Arrifen.

Amazigera guztiak ahozko hizkuntzak izan dira orain artean, bakoitza bere bazterrekoak, hizkuntza zahar, zabal, sakabanatu, arau gramatikaldu gabearen formak direla jakin gabe.



Amazigerazko dialektoen gunek

Arrif aldeko jendea pezo eta harriz eraikitako etxe umil sakabanatutan bizi zen. Laborantza zuten ogibidea gehienek, baina janaria ez zen oso ugaria izango. Gizonak artilzeko txilaba janzen zuten eta turbante zuria, kotoizkoa (oinetan, babutxak edo espartzuko sandaliak). Emakumeek zetazko edo kotoizko alkandora eta galtza bonbaxoak eramaten zituzten (eta ortozik ibiltzen ziren sarritan). Islamean ohi denaren kontra, ez zuten aurpegia estaltzen eta, gainera, tatuaria eritualak luzitzen zituzten kokotsean

edo bekokian. Heziketa, Korana ikastea zen. Mutikoez bategi ere, Koraneko bertsikuluak buruz ikasi behar izaten zituzten. Lege Koranikoaren arabera, gizonak lau emazte izan zitzaizkeen arren, Arrif aldeko gizonak monogamoak izaten ziren normalki (pobreak zirelako normalki, beharbada). Tributan edo kabilatan antolatuta zeuden, halako demokrazia primitiboarekin. Bizimodu gogorra zuten eta jende itxia eta mendekuzalea omen zen, arrumi edo 'kristauekiko mesfidantza zahar eta txarrekin.

GRAMATIKA BERRIA

Pedro H. Sarrionandiak, mintzaira ikastea erabaki eta arrumi ('erromatar') horiekiko mesfidantzarekin egingo zuen topo berehala. Ez zitzaion erraza egingo, moroen errezelo horiengatik, eta laguntzeko prest zeudenak ere gramatikarekiko argitasun handirik emateko gauza ez zirelako.

Jose Lertxundiz gainera, beste lagun batzuk izan zituen Pedro H. Sarrionandiak Tetuan eta Tangerren. Esate baterako, Julian Alkorta, Tetuango Misioko superiorra. Julian Alkorta Batiz, Etxanon jaioa zen 1865ean, Garaikoaren sorleku-kide eta adinkidea, Arsenio Martínez Camposen itzultzailea izan zen 1893ko Melillako gerra kanpainan. Arabiera oso ondo hitz egiten omen zuen eta Marokoko Misio Frantziskanoetako Komisarioa izango zen harik eta 1932an Tangerren hil arte. Ricardo Ruiz Orsatti ere lagun izan zuen, 1871n Tangerren jaioa, arabiera interpretea Tetuango Kontsulatu Espainolean, baina Errusiako Inperioarentzat ere lan egiten zuen, drogman gisa. Lagun honek anekdota bat kontatuko zuen gero Mauritania aldizkariako artikuluan. Familia arrifi batek ume bat galdua zuen aspaldian eta, fraideak amazigeraz zekiela ikusirik, antzina galdutako umea zela uste izan zuten:

"...arrifera ondo hitz egitea lortu zuen (Pedro H. Sarrionandiak), eta behin gertatu zen, urteak geroago, Tangerren zegoela, Espiritu Santuko komentura heldu zela Arrifeko familia bat fraide amaziga erreklamatzera Eta zaila izan zen ama zahar hari sinestaraztea gizon hori kristaua zela, Espainian sortua, ez zela sortzez arrifia, hizkuntza ondo ikasia zuen arren."

1896an, Jose Lertxundi hil zenean, gogaide eta babesle nagusia desagertu zitzaion. Prefektu Apostoliko berriak ez zuen amazigera ikasteko batere beharrik ikusten. Urte batzuk bestelako zereginetan galdu ondoren, laguntzaile berriak agertu ziren: Eduardo Alvarez Ardanuy, gasteiztarra, Ejertzito espainoleko teniente koronela, Hamete ben Tuhami eta Arrifeko Tiratzaileen Erregimentuko beste arrifi batzuk. Pedro H. Sarrionandiak Tetuanen (Nuestra Señora de las Victorias komentuan), Melillan eta Tangerren jarraitu zuen beharrean.

Eta lan eskergaren ondoren, 1904ko udarako bukatuta zegoen gramatika. Urte bete berandutu zen Misio Katolikoaren moldiztegiari, harik eta hurrengo abuztuaren argitaratu arte: Gramática de la lengua rifeña. Arrifien hizkuntza, tarifit delakoa (t[...]t: arrifi > tarifit), alfabeto konbentzional espainola erabilirik azaltzen zen, Ollen-



🕒 Ezkerretik eskumara: Gramatica de la lengua rifeña, 1905eko edizioa • Gramatica de la lengua rifeña, 1925eko edizioa • Contestación del P. Pedro H. Sarrionandia a Mr. René Basset, 1907 • Noticia sobre la lengua que se habla en el Rif, 1909.

dorf metodoaren arabeko modu argi eta ikasteko praktikoan. Gramatika garrantzitsua zen hizkuntzalari-tzarentzat, glotologia kamitikoaren alorrean, eta filologia konparatuarentzat. Historialarientzat ere inportantea zen (puzlearen zati lez), Afrika iparraldeko antigoaleko populazioaren nondik norakoak aztertzeko.

Bestelako oihartzunak ere izan zituen. Aljeriatik, René Basset ikerlariak *Revue d'histoire et de littérature* aldizkarian komentario ez hain faboragarria argitaratu zuen, Frantziaren eta Espainiaren arteko lehiaren ezaugarri ziren prebentzioekin. Pedro H. Sarrionandiak 66 orrialdeko liburuxka argitaratu behar izan zuen ikerlari frantsesari erantzunez, hainbat puntu argitzeko: *Contestación del P. Pedro H. Sarrionandia a Mr. René Basset*.

Dena dela, gramatikaren oihartzun ozenenak politikoak izan ziren (gramatika inperioaren laguna dela esan zuen Elio Antonio de Nebrixa mendeko lehenago). Segismundo Moret, Marcelo Azcarraga, Camilo Polavieja eta espainiar kolonialismoaren sostengatzaileek liburua laudatu zuten, kultura enpresa politiko-militarraren partea zelakoan, gramatika hura amazigen artera bakez sartzeko bide egokia izan zitekeelakoan.

ESPANIAR KOLONIALISMOA

Espainia ere Europako beste estatu batzuen moduan hasi zen, XIXgarren mendearen erdi aldetik aurrera, Afrika konkistatu eta kolonizatu nahian. 1898ko Kubako eta Filipinetako desastreak ez zitzaizkien amore emateko motibo bihurtu. Estatu Batuen kontra jasandako umiliazioen ondoren, inperio ametsak berriz gauzatzeko aukera zutela pentsatu zuten politiko eta militar frakasatu haiek, koste minimoekin, infidelen kontrako Erdi Aroko gerren espiritua errekuperatuz eta erlijioa modernizazioaren

ideiekin bernizatuz. Maroko zibilizatu eta modernizatu nahi omen zuen Espainiak, penintsula bera modernizatzeko ere gauza ez zen arren.



Marokoko gerra

Marokoko Inperioan, berriz, sultanaren boterea oso ahula zen. Irtenbiderik gabeko zirkulua (etengabeko katea) hauxe zen: botere nahikoa ez zuenez gero, europar enpresa eta estatuei kontzesio handiak egiten zituzkien sultanak; europarron eskuetan jartzen zuelarik boterea, subditoak ernegatu egiten zitzaizkion, eta errebelatu ere bai, legitimazioa eta boterea ere kenduz sultanari; eta orduan, sultanak europar estatuen babesa larriago behar zuen, ahalmena eta aginpidea izateko.

1902 urtean hasi ziren Espainiaren eta Frantziaren arteko negoziaketak Marrokori buruz. Britainia Handia konformatu zenean, 1904ko ekainean sinaturiko Frantzia eta Britainia Handiaren arteko Entente Cordiale delakoarekin Egipto britainiarrentzat eta Maroko frantsesentzat geratzea adosturik, Madrid eta Paris arteko negoziaketak erraztu ziren eta Frantziak Marokoko lurralde zati bat (Gibraltarretik hurbilekoa) eskaini zion Espainiari. Alemaniako Wilhem II enperadoreari, ostera, ez zitzaion tratua



Melilla, soldadu espainolak 1893 aldera.

gustatu, alemanen interes komertzialak Afrika iparraldetik kanpora geratzen zirelako. Honek nazioarteko konferentzia bat proposatu zuen eta Algeciras hirian bildu ziren.

Pedro H. Sarrionandiak Conferencia de Algeciras delakoan berbere itzultzaile gisa parte hartu zuen (Julian Alkorta arabiera itzultzaile gisa parte hartu zuen) Espainiako Gobernuaren ordezkari izan. Konferentzia hartan erabaki zen Marokoren etorkizuna, marokoarrak deliberazioen lekuko ezindu zirela. 1906ko apirilaren 7an sinatutako aktan, Alemania, Austria-Hungaria, Belgika, Estatu Batuak, Frantzia, Holanda, Britainia Handia, Marroko, Portugal, Suedia eta Espainiako ordezkariak, Espainia eta Frantzia arteko akordioan zehaztutako influentzia esparruak onartu zituzten; eta alemanek Marokon negoziatioak egiteko eskubidea ere bai.

Akordioak nazioarteko tentsioa lasaitu zuen, baina ez zuen Marokora onura ekarri, ez bakea. Akordioaren arabera, Espainiaren babespean ('babesle' gisa aurkeztu baitira beti konkistatzaileak) geratu zen Maroko iparraldekoa: Ozeano Atlantikotik sartaldean Aljeriako mugaraino sartaldean; Mediterraneoan iparraldean eta Uarga ibaia hegoaldean. 20.000 inguru kilometro karratu balio eko-

nomiko eskasekoak: laborantzarako gauza ziren ordoki batzuk itsasbater atlantikoan, basamortu zelaia sartaldean, eta lurralde menditsu eta malkartsuak erdialde eta hegoaldean. Populazioa 700.000 ingurukoa zen, baina oso sakabanatua eta kabilatan (tributan) antolatua. Larache eta Tetuan ziren hiri bakarrenetakoak; Zeuta eta Melillarekin batera.

Moroen erresistentzia espainolen kontra zaharra zen. Espainiarren ahaleginek Zeuta eta Melilla hiri inguruaz jabetzeko eta, XXgarren mendearen hasieran, meategiak ustiatzeko, kabilen erresistentziarekin egin zuten topo. 1909ko sarraskiak, esate baterako, Compañía Española de Minas del Rif enpresak Ait Bufrur kabilako burdin meategiak ustiatzen hastearekin gertatu ziren. 1909eko uztailaren 9an, arrifiek minerala Melilla eramateko burdinbideari eraso zioten, Mohamed ben Amezián xerifea buru izan zuen intsurrekzioari hasiera emanaz. Ait Bufrur, Masusa, Ait Sikar, Ait Sidel, Ait Bugafar, Ait Buiahi, Ait Said, Tamsaman, Ait Tusin, Metalsa eta Ait Uariagel kabilak gerra zeharo anticolonialean engaiaitu ziren. Espainolek Gurugu mendia eta Kert ibaiaren bazterrak okupatzera joan ziren eta, Barranco del Lobo deitzen zuten atakan, ehunka militar erori ziren moroen erasopeko sarraskian.


Jende gehiena Marokoko gerraren kontra zegoen Espainian, kapitalista gutxi batzuen interesak eta Ejerzito harro haren nabarmendu nahia besterik ez zirelakoan gerra hartan jokatu. Erreserbistak barkutan sartu eta Melillara bidaltzen hasi zirenean, jendea ernegatu egin zen eta agerraldiak eta grebak hasi ziren. Protestak zabaldu ziren uztaila-abuztuan eta, Bartzelonan batez ere, bilakaera larria izan zuten. Arrifeko Barranco del Loboko sarraskiaren ondoren, Bartzelonako 'aste tragikoa' heldu zen, manifestazio antimilitaristak antikapitalista eta antikerikal ere bihurturik.


PEDRO H. SARRIONANDIAREN ITZULERA

1909an, Pedro H. Sarrionandiak informe bat bidali zion Espainiako heziketa ministroari. Editore izenik gabe baina data osoarekin, azaroaren 23an argitaratu zen: *Noticia sobre la lengua que se habla en el Rif*.

1910eko maiatzean, Mogador (gaur eguneko Essaouira) aldera joan zen Pedro H. Sarrionandia. Marokoko Komisio espainolaren buru zen Eduardo Álvarez Ardanuyk eskatuta, Santa Cruz de la Mar Pequeña lokalizatzeko batzordean parte hartu behar izan zuen. Historia xelebrea zen Santa Cruz de la Mar Pequeña delakoarena. 1860an, Uad-Raseko Tratatuan, Maroko mendebaldeko kostaldean antzina izan omen zen gotorleku inguruaz jabetzeko eskubidea onartu zitzaion Espainiari. Diego García de Herrera delako marinela batek 1476 urtean Gaztelako estandartea ezarri omen baitzuen Afrikako itsasertzeko hondartza ezezagun batean, haren jabegoa berreskuratzea zen gauza, nahiz eta inork ez jakin leku hori benetan non zegoen. Leopoldo O'Donnellen amarrua izan zen, seguru asko, kanariarra izanda, Kanarietako arrantzarantz faktoria bat lortu nahi zuelako kontinente bazterrean. Espainiar geografo eta historiagileen arteko eztabaida arraro luzeak izan ziren harrezkero, jakina. 1878an, Cesareo Fernández Duroren iritzia hobetsirik, Uad Ifni itsasadarrean lokalizatu zen ofizialki. 1902an, Frantziak ere eman zion Espainiari Sahara mendebaldeko Río de Oro eta Santa Cruz de la Mar Pequeña delako nonbaiteko lurralde horren jabegoa, Fezeko harana eta Tazako pasabidea uztearen truke. Askozaz geroago, 1934ko apirilaren 6an, okupatuko zuen Espainiak Fernando Capaz koronelaren Gomarako taborrekin Ifniko territoria.

Pedro H. Sarrionandiak hango amazigera ikertu zuen Mogador aldean: xelha edo axelhera. Haren asmoa, iparraldeko arrifera ezagutzen zuenez, hegoaldeko hizkerak ere



 Pedro H. Sarrionandia abiapuntutzat duen saiakera berri bat.

aztertzea zen. Uad Ifni aldean ere ibili zen, Ifniko lurralde espainoleko Ait Baamran kabilan baamranera ikertzen.

Mohamed Amezianen intsurrekzioak jarraitzen zuen artean, Frantziak eta Espainiak euren amaraun kolonialista zabaltzen segitu zuten. 1912an, Espainiak Frantziarekin sinatu zuen akordioa, Marokon biak (bakoitza bere partean) babesle izango zirela. Hala sortu zen Protectorado espainola, sultanaren soberaniapean eta Tetuanen lekutu-tako kalifaren administrazioarekin. Espainolen xede estrategikoa, Zeuta eta Melilla hirietatik abiatu eta apurka apurka territorio osoa modu ahalik eta baketsuenean menperatzea zen. Baina ezinezkoa egin zitzairen baketsuak izatea konkistazailen izatearekin batera. Gerraontzi eta infanteriaren bidez egin beharko zuten aurrera Arrifeko lurraldean.



Pedro H. Sarrionandia Lebrijako (Elio Antonio Nebrixa-koaren sorlekura, idazkera gora-behera) komentura bidali zuten. Han, Diccionario rifeño-español delakoan jarraitu zuen lanean, gramatikaren osagarri, eta amazigeraren inguruko beste lan batzuetan. Garaira bueltako zen 1913ko udan. Orduan izan zuen istripu tontoa. Durangotik Zornotzara tranbia hartuta, bagoitik jausi eta Larreako komentuan hil zen, 1913 abuztuaren 5ean.

Amaitu gabe utzi zuen lana. Baina, dultzaineroa hildakoan, dultzainak jotzen jarraitzen duela dio arabiar atsotitz batek. Pedro H. Sarrionandiaren herentzia bitan banatu zen, bi dultzaina behintzat geratu balira bezala jotzeko. Bata Esteban Ibañezek eta bestea Mohamed ben Abdelkrimek, dultzaina jotzeko modu ondo desberdinak.

 Marokoko gerra



ESTEBAN IBÁÑEZEN IRUZURRA

Pedro H. Sarrionandiak hainbat izkribu utzi zuen Lebrijako komentuan. Hil zenean, material guzti hori kutxa handi batean sartu zuten eta luzaroan geratuko zen inork ukitu gabe, ez zegoelako frantziskanoen artean beste inor amazigerari buruz bereziki interesatua. Harik eta 1937an Esteban Ibáñez, agertu zen arte. Esteban Ibáñez Burgosen jaioa zen, Arenillas del Río Pisuerga herrixkan, 1914an. Chipionan lehen meza eman eta Marokoko Misioetara destinatu zuten, noiz eta, 1937an. Tangerren egon zen lehenengo eta, 1938an, Nador aldera bidali zuten parroko gisa. Hala, gerra zibila amaitu orduko, Pedro H. Sarrionandiaren kutxa zaharra hartu zuen, esku-izkribu altxor hura editatzeko ardura hartu baitzuen. Denbora gutxi eman zuen Esteban Ibáñezek Marokon, 1942an ja Madrilerara itzuli zelako. Kutxako izkribuak argitaratzen hasi baino lehenago, hainbat artikulu publikatu zituen: Tangerreko Mauritania aldizkarian, Pedro H. Sarrionandiari buruzko entsegua edo amazigeraren historia eta hedadurari buruzko zortzi ataleko saiakera atalka, eta Madrileko Verdad y vida agerkarian ere beste bi artikulu. Orduan, liburuak argitaratzen hasi zen. 1944an, Esteban Ibáñezek gaztelera-arripera hiztegia argitaratu zuen, Ramón Menéndez Pidalen prologoarekin. Esteban Ibáñezek harreman onak zituen Madrilen gobernuarekin, Fernando María Castiella Kanpo Arazoetako Ministroaren kapilau ere izan zen Arabia Saudira egin zen bidaia ofizialean.

Pedro H. Sarrionandiaren kutxa ezagutzen zuten fraideak harririk geratu ziren, hiztegiaren portadan, autoretzat Esteban Ibáñezek izena bakarrik ikustean. Nahiz eta liburuak Pedro H. Sarrionandiari eskaini, hiztegiaren oinarrian haren lana zegoela ez zen azaltzen. Fidel Lejarzak autoretza arazo hori planteatu zuen zuzenki erreseina batean:

“...ez litzateke gehiegikeria esatea kasu honetan justua zatekeela maisuaren eta dizipuluaren izenak egilekide gisa azaltzea portadan bertan.”

Hurrengo urteetan, Esteban Ibáñezek Pedro H. Sarrionandiaren laudorioak egiten jarraitu zuen Africa, Verdad y Vida eta Archivos del Instituto de Estudios Africanos aldizkarietan, kutxako materialak argitaratzen zituen artean. 1949an, hiztegiaren bigarren partea publikatu zen, arrifera-gaztelera, Julio Casaresen prologoarekin. Hiztegi honek ere harrera ona izan zuen, erreseina ugari bai prentsan bai linguistika aldizkarietan, eta autoretzari buruzko eztabaida berpiztu zen, frantziskanoen barruti gordean. 1954an, Esteban Ibáñezek gaztelera-baamranera hiztegia argitaratu zuen, José Díaz de Villegasen hitzaurrearekin. Hau ere Pedro H. Sarrionandiaren kutxako materialean oinarriturik. Baamranera, Ifniko lurralde espainoleko Ait Baamran kabilan hitz egiten zen amazigera zen, axelheraren azpidialektoa. Esteban Ibáñezek arriferari buruzko artikulu batzuekin jarraitu zuen, eta azken hiztegi bat ere argitaratu zuen: gaztelera-senhajera. Garaikoaren beste gai ezaguna zen, senhajera, arrifera ez zen Arrifeko dialekto amazig bat, Pedro H. Sarrionandiak deskubritu zuena Europako ikertzaileen-tzat, Amedée Renesiok esplikatatu zuenez.

1961ean, Marokoko Misisio Frantziskanoen ehun urtegarrena zelebratzen zuen liburuan, Esteban Ibáñezek ikerketen autoretzaren arazoa modu anonimo baina argian planteatu zen frantziskanoen artean:

“Misioko nagusiak fitxategi oparo eta baliotsua A. E. Ibáñezek eskuetan utzi zuen, A. Sarrionandiaren afizioen jarraitzaile urruna baitzen; eta fitxategi hori arintasun ulertezin eta deskuidu gaitzesgarriarekin desagertarazteaz batera, ikertzaile eta egile nagusiaren izenaren ordezkari antolatzaile eta proben zuzentzailearen izenez si-

naturik eman zuen argitara Diccionario Español-Rifeño (Madrid, 1944). Misisioak gaitzetsi behar du desobediencia eta deitoratu behar du fitxategiaren galera; nahiago baitzukeen harribitxi eder gisa gordetzea A. Lerchundiaren Vocabulario Español-Arábigo liburuaren apunteak gordetzen diren bezala.

Itzarrotekoa da, baldin eta hiztegiaren beste edizio bat egingo balitz, lehenengoan egin zen injustizia apur bat behintzat konponduko dela eta A. Sarrionandiaren izena jarraitzaile eta dizipuluaren izenaren aurretik ipiniko dela. Lan intelektualaren alorrean ere apodiktikoa baita Unicuique suum!”

Akusazioa, oraingoan zuzena eta gogorra zen. Liburuaren erreseina bat argitaratu zuen Verdad y Vida aldizkari frantziskanoan, Fr. Ignacio Berazaluce sinadurarekin, Esteban Ibáñezek auzia zeharka azalduz. José Luis Sotok, berriz, beste iruzkin batean, Ignacio Berazaluceren ironia ondo konprenitu gabe, Esteban Ibáñezek iruzurra argiagi salatuko zuen. Arazoa Erromaraino heldu zen, Augustin Sepinki Frantziskanoen Ministro Orokorren eskuetara. Erroman talde berezi bat sortu zen arazoa ikertu eta erabakitzeko.

Gertaerak modu ahalik eta diskretuean argitu ziren, frantziskanoen arteko barru arazoa balitz bezala. Erabaki zen denbora pasatzen uztea eta liburuak berrargitaratuz gero autoretza bie aitortzea. Orainsu, Esteban Ibáñez hil ondoren (1998an hil zen Madrilen), gaztelera-arrifera eta arrifera-gaztelera hiztegi biak batera berrargitaratu dira, eta Vatikanoko aspaldiko erabakia bete da. Ramón Lourido frantziskanoaren aitzin-solas zehatzean argitzen denez, Esteban Ibáñezek ez zuen egundo amazigera benetan ikertu. Kutxako materiala, berriz, editatu ondoren, suntsitu egiten zuen.

Ramón López Capelánen testigantza pertsonala nahiko erabatekoa da gertatutakoaz. Esteban Ibáñezek Pedro H. Sarrionandiaren kutxako eskuizkribuak, 'erkatu, ordenatu eta sakondu' ondoren, erre egin zituen:

"Aita Sarrionandiaren Diccionario Rifeñoaren fitxategia (letra arabiarrez idatzia uste dut) osorik erre zen, Nadorreko Misioko baratzean. A. Esteban Ibáñezek berak erre zuen, hau sinatzen eta egiaztatzen duenaren aurrez aurre [...]. Arrif aldeari buruzko beste koaderno interesgarri batzuk ere berdin erre zituen. A. Sarrionandiak bildutako material guzia erabili ondoren egin zuen jukutria bar-kaezin hori..."

Eskuizkribuen suntsidura kaltegarria suertatu zen hainbat zentzutan. Arabierazko grafiaz idatzitakoa desager- tu zen hein handi batean. Euskararen aldetik ere, fitxak erretzea galera handia izan zela pentsa daiteke, zeren, Esteban Ibáñezek berak idatzi zuenez, Pedro H. Sarri- onandiak fitxetan amazigerazko hitzen alboan euskarazko ekibalentziak apuntatzeko ohitura baitzuen:

"Haren oharrak errebisatu eta ordenatzean ikusi ahal izan dugu hitz berbereen fitxetan, maiz, euskaraz dago- kion hitza apuntatzen duela."

Fitxategia eta material nagusiak galdua, Tangerreko Ar- tzapezpikutegiko Artxibategian Pedro H. Sarrionandiaren beste koaderno batzuk gordetzen dira, hala ere, Maroko- ko hegoaldeko amazigerari buruzkoak gehienak.

Arrif aldean bestela jo zen dultzaina.

MOHAMED BEN ABDELKRIM, MORO ONA ETA GAIZTOA

Abdelkrim izenez famatuko bazen ere, hori aitaren izena zen. Bera Mohamed ben Abdelkrim zen, hau da, 'Mohamed, Abdelkrimen semea'. 1882an sortu zen Axdir herri- an (espainolek 1673tik okupatutako Al Hoseimako hai- tzetik hurbil), Ait Uariagel tribu edo kabilan, Ait Khatab ahaidegoan. Abdelkrim ben Mohamed, aita, espainoleki- ko harreman on probetxugarrien aldekoa zen. Espaino- len pentsioa ere jasotzen zuen, pertsonalki, laguntzaren ordainez, eta semeek erraztasun handiak izan zituzten ikasketetarako eta gero administrazio espainolean pos- tuak lortzeko.

'Moro onak' ziren, orduan, espainolek moro onen eta moro gaiztoen artean egiten zuten bereizketan zeha- tzean. 1906 urtean, 24 urte zituela, Mohamed ben Ab- delkrim Melillara itzuli eta maisu lanean hasi zen Gran Capitán kaleko ume musulmanentzako eskolan. Cándi- do Loberaren El telegrama del Rif kazetan ere hasi zen eskribitzen, arabierazko kronikaren erredaktore. 1907ko martxotik 1915eko apirilera arte idatzi zuen, lehenen- go orrialdean, sinatu gabe, arabieraz. Artikuluetan, Es- painiak aurrera zeraman zibilizazio lana laudatzen zuen, moroak atzerapen ekonomiko eta kulturaletik ateratzeko egokia zelakoan. Hala ere, espantsionismo frantsesa sa- latzen zuen. 1908an, Arabiera Akademia Ofizialean ere bazebilen militar espainolei arabiera irakasten. 1910ean, Melillako Oficina de Asuntos Indígenas bulegoko idazka- ri itzultzaile izendatu zuten. Arazo Indigenen Ofizinako kadi (juje islamiko) kargua eman zioten, gainera. 1912an, meatzetako erreklamazioen aholkularia ere bazen. Ordu- rako, Mohamed ben Abdelkrim, hain ona baitzen 'moro ona', Caballero de la Orden de Isabel la Católica izenda- tua zuten. 1912ko martxoan, Medalla del mérito militar eman zioten. 1913ko urrian, Medalla de África...

1914ko udazkenean, Pedro H. Sarrionandia hil eta urte batera, xelha ikasteko eskola bat sortu zen Melillan. Arabiera Akademia Ofiziala 1906an sortua zen. Xelha Akademia Ofiziala 1914an erantsi zitzaion arabierazkoari, eta Mohamed ben Abdelkrim izan zen lehenengo irakaslea. Mohamed ben Abdelkrimek berak egin zuen ikastaroaren aurkezpena El Telegrama del Rif kazetan 1914ko urriaren 2an. Amazigeraren garrantzia azaldu ondoren, eskerrak eman zituen irakasle izendatu zutelako, eta azpimarratu zuen Pedro H. Sarrionandiari zitzaion zorra:


“Ohoratua sentitzen naiz amazigera irakasle izendatua izan naizenean, hiri honetako Akademia Ofizialean. Niregan ipini den konfiantzaren trukean, helburu horren alde ene ahalegin guztiak egingo ditut. Eta gutxi barru bertakoekin amazigera mintzatzeko bezainbeste jakingo duen jendea izango da.


Pedro Sarrionandia aita frantziskotar espainol beneragariarena da, gizon hain ikasi horrena, amazigerazko gramatika benetan oso bat idaztearen loria. Liburu horretan ikusten da ze ondo eta sakonki ikasi zuen hizkuntza. Ene aldetik, irakasle papera beteko dut, Mohamed Tah-Tah ene laguntzailearekin. Pedro Sarrionandiaren liburuan erakusten den gaiak azaltzeko metodoa jarraitzeko asmoa dut, liburuak erakusten dituen ikasgai eta ariketak erabiliko ditut, hasieran arbelean egingo ditugu ariketak eta itzulpenak egunero. Eta ikasleek behar bezainbeste ikasteen, hasiko gara elkarrizketak praktikatzen.

Ene asmoa da ikastaro honetan parte hartzen duten guztiak, militarrek zein paisanoek, hemen bizitzeko hain beharrezkoa den hizkuntza hori ikastea. Otoitz egiten diot Jainkoari lagun gaitzan helburu horren alde.”

Moro ona munduko mororik gaiztoena bihurtu zen laster Mohamed ben Abdelkrim (Osamen ben Laden eta geroko



 Mohamed Ben Abdelkrim

beste asko bezala) mendebaldarrentzat. Espainolek preso hartu zuten (askatasuna nahi duenak galtzen du askatasuna goizen) Frantziarren etsaia zelakoan Lehen Gerla Handiaren egunetan. Libre utzi zutenean, Mohamed ben Abdelkrim Ait Uriagelera kabilara itzuli zen, eta hala bihurtu zen moro ona gaiztoa espainolentzat (moro txarra ona bihurtu zen, ostera, arrifientzat, batez ere arrifien intsurrekzio handian parte hartu zuenetik. Espainolentzat El Desastre de Annual (moroentzat, ostera, logikoki, ‘Annualgo Garaipena’) deitzen dena helduko zen orduan, 1921eko uztailan, eta errepublika independente bat fundatuko zen Arifeko ibar-mendi mortuetan. Hala ere, hori beste historia bat da. Historia den zabortegitik atera beharko litzatekeena, baina beste momentu edo bitarte batean beharbada. 

Mohamed Tah Tah

Ohar bibliografikoak edizio digitalean. www.gerediaga.com